

Deialdia, Antsoingo Udaleko idazkari izateko lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako betetzeko, eta izangaien poltsa bat osatzeko, izan daitezkeen beharrei erantzute aldera.

Idazkaritza deialdia

1. oinarria – Arau orokorrak.

1.1- Deialdi honen xedea da Antsoingo Udalerako idazkari izateko lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako betetzea, eta izangaien poltsa bat osatzea, izan daitezkeen beharrei erantzutearren.

Idazkari bati dagozkion eginkizunak beteko ditu.

Hautapen-prozesu hau gainditzen duten izangaiek osatuko dute enplegu poltsa, edota ariketa teorikoa gainditzen dutenek, behintzat, eta puntuazio hurrenkera zehatzaren arabera egonen da antolatua. Poltsak 5 urterako balioa izanen du edota beste deialdi bat egin arte, idazkaritza lanpostuan gerta daitezkeen beharrei erantzute aldera.

1.2. 5. oinarrian ezarritako hautaprobak egingen dira, eta lehiaketaldia, baldintza-agiri honen 6. oinarrian aurreikusitakoarekin bat baloratuko da.

1.3. Deialdi honen ondorioz izendatzen direnek administrazio-kontratudun izaera izanen dute, eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatu eta bertan alta emanen zaie.

Aldi baterako kontratua egingen da, araubide administratiboan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 88. b) artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat; ordezkapenaren zergatia bukatzen denean amaituko da kontratua eta, nolahi ere, lanpostua arauzko prozeduraren bidez behin betiko betetzen denean.

Era berean, kontratua amaitzeko zergatia izanen da Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatze arauak ezartzen dituen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 8. artikuluan aipatuetariko edozein.

Bi hilabeteko probaldia ezarri da, eta epe horretan edozein alde deuseztatzen ahal du kontratua.

1.4. Lanaldia administrazio dei-egileak ezartzen duena izanen da; betiere zerbitzuaren beharren arabera, eta administrazio horrek noiznahi aldatzen ahalko du.

1.5. Lanpostuak A mailari dagokion oinarrizko lansaria izanen du, Ordainsariei buruzko Behin-behineko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, eta onesten diren osagarriak, administrazio dei-egilearen plantilla organikoan ezarritakoak.

2. oinarria – Izangaiek bete beharreko baldintzak

Lanpostu horretarako lehiatzen direnek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

A) Espainiar nazionalitatea edukitzea, hamasei urte beteta izatea eta erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.

B) Hauetako ikasketa tituluren bat edukitzea, edo eskuratzeko moduan egotea, edo bakoitzari dagokion gradu-titulua, edo baliokidetzat jotzen den beste titulu hauetako bat:

1. Zuzenbide gradua.

2. Politika eta Administrazio Zientzietako gradua edo Soziologiako lizentziatura edo Politika Zientzietako eta Soziologiako lizentziatura edo baliokidea.

Aipatutako tituluen baliokideak diren ikasketak eginak dituztela alegatzen duten izangaiek baliokidetasun hori onartzen duen lege edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo, bestela, baliokidetasunari buruz Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak luzatutako ziurtagiria aurkeztu.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

C) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

D) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

E) Euskaraz jakitea, C1 mailaren titulua, baliokidea den Hizkuntza Eskola Ofizialeko Gaitasun Agiria aurkeztuz egiaztatua, edo eskatutako ezagutza duela egiaztatzen duen berariazko probaren bidez.

F) Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bulego batean izena emanda egotea lan eskatzaile gisa edo enplegua hobetzeko eskatzaile gisa.

3. oinarria – Prozedura

3.1. Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat (ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onartua), behin behineko langileak hautatzeko prozedurek gehieneko arintasuna lortu behar dute.

Aintzat hartu behar da hau premiazko kasua dela. Izan ere, Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 239. eta 249.

artikuluerekin bat, idazkari lanpostuaren eginkizunak dira fede publikoa ematea organoen egintza eta erabaki guztiei eta lege-aholkularitza tokiko entitateetako organoei, udalaren kudeaketa eta jarduna ez geldiarazte aldera, interes orokorraren defentsan eta auzokideen zerbitzua ematearen defentsan; horrenbestez, enplegu-eskatzaileen zerrenda bat eskatuko zaio (enplegu hobekuntza barne) Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Iruñeko Enplegu Bulegoari, betiere deialdiaren 2. oinarrian ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileak biltzeko, aipatu zerrendan sartzen direnek kasuan kasuko hautaprobetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Halaber, hautapen-prozesurako onartzen ahalko dira baldintza horiek bete eta edozein enplegu-bulegotan izena emanik dauden enplegu-eskatzaileak edo enplegua hobetu nahi dutenak. Egoera horretan daudela forgatu beharko dute eskabidearekin batera.

3.2. Deialdi honetan parte hartzeko eskabidea Antsoaingo Udaleko erregistroan aurkeztu beharko da, edota bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz.

Eskabidea 39/2015 Legean ezarritako bideetako bat erabiliz aurkeztu nahi bada, posta elektronikoa igorri beharko da ahalik eta lasterren ayuntamiento@ansoain.es helbidera, inguruabar horren berri emateko, administrazio-lana errazte aldera. Eskabidea posta bulego batean aurkezten bada, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzaten.

Eskabidea deialdi honen I. eranskinean ageri den ereduarekin bat egingen da.

Interesdunek 2019ko azaroaren 22ra arte aurkezten ahalko dituzte eskabideak. Oinarriak Antsoaingo Udaleko iragarki-oholean nahiz webgunean argitaratuko dira: www.ansoain.es

Eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia aurkeztu beharko dute, eta era berean, langabezia-txartelaren edo enplegu-hobekuntzarena, bai eta 2. oinarriko B eta E ataletan eskatzen den titulazioarena ere, edota, kasua bada, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako hura erdiesteko moduan izanen direla adierazten duen agiriarena, eta baloratu beharko diren merezimendu alegatuen fotokopia ere.

Dokumentu horiez gain, minusbaliotasuna duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, minusbaliotasuna frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana, eta halaber, osasun ziurtagiria, lanpostuaren eginkizunetan aritzea galarazten dion eritasunik edo akats fisikorik edo psikikorik ez duela frogatzen duena.

Izangai horiek ariketak egiteko epeak eta moduak egokitzeko eskatzen ahalko dute, hala behar izanez gero. Kasu horietan eskabidean, beste orrialde batean,

adierazi beharko dute zer nolako desgaitasuna daukaten eta zein egokitzapen eskatzen duten.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, jendaurrean paratuko da izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, Udaleko iragarki-oholean eta webgunean, eta 3 egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko edota aurkeztu diren eskabideen akatsak zuzentzeko.

Izangai baztertirik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean argitaratuko da.

Aipatu epea bukatu eta aurkezten diren alegazioak ebatzi ondoren, alkatetzak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko; zerrenda Antsoaingo Udaleko iragarki-oholean eta webgunean jarriko da jendaurrean, hautaprobak –eta kasua bada, baita euskarazko probak ere– egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

4. Kalifikazio epaimahaia.

4.1. Kalifikazio epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Epaimahaiburua: Ander oroz Casimiro. Antsoaingo Udaleko alkatea

Ordezkoa: Aritz Ayesa Blanco. Antsoaingo Udaleko alkateordea

1. epaimahaikidea: Asun Nieto Zabala, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziokoa.

1. epaimahaikide ordezkoa: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatu beharreko ordezkari bat.

2. epaimahaikidea: M^a Dolores Reyero Santamaría. Toki Administrazioko Departamentua. Nafarroako Gobernua.

2. epaimahaikide ordezkoa: Purificación González Merchán. Toki Administrazioko Departamentua. Nafarroako Gobernua.

3. epaimahaikidea: Javier Gil Izco, Atarrabiako Udaleko idazkaria.

3. epaimahaikide ordezkoa: Atarrabiako Udalak izendatu beharreko pertsona bat.

4. epaimahaikidea: Natalia Rodríguez Aguado, Berriozarko Udaleko idazkaria.

4. epaimahaikide ordezkoa: Berriozarko Udalak izendatu beharreko pertsona bat.

4.2. Kalifikazio epaimahaiko idazkaria epaimahaikideetako bat izanen da, eta kasuak kasuko aktak jasoko ditu, eta epaimahaikide bakoitzak akta guztiak sinatu beharko ditu.

4.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, bere kideen gehiengo osoa bederen agertu gabe. Halaber, mahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, eraketa baliozkoa izan dadin.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdi honen oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazoak. Berdinketarik bada, epaimahaiburuak bere kalitatezko botoa erabiltzen ahalko du.

5. oinarria – Probak

Oposizioaldia hasi baino lehen euskararen proba eginen dute deialdi honen 2.E oinarrian eskatutako ezagutza agirien bidez egiaztatu ez dutenek eta proba egiteko interesa eskabidean adierazten dutenek. Proba horretan bi ariketa eginen dira, bata idatzizkoa eta bestea ahozkoa, eta horiekin zehaztuko da izangaia gai edo ez-gai den, C-1 hizkuntza mailari edo baliokidea den tituluari dagokionez. Gaitzat jotzen ez direnek ez dute oposizioko probak egiterik izanen. Proba horren emaitzak argitaratzearekin batera oroitaraziko da non eta noiz eginen diren proba teorikoa eta praktikoa.

5.1. **Proba teorikoa:** ariketa idatzia izanen da, erantzun laburreko edo test motako galdera batzuei erantzuteko, funtsean honako gaiei buruz:

1. Espainiako Konstituzioa, 1978koa.
2. 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
3. 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
4. 7/1985 Legea, Toki Araubideko Oinarriak Arautzen dituena.
5. 280/1990 Foru dekretua, urriaren 18koa, Toki Entitateetako ondasunen Erregelamendua onesten duena.
6. 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua onesten duena.
7. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
8. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
9. 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
10. 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.

11. 4/2005 Foru legea, martxoaren 22koa, ingurumen babesteko esku hartzeari buruzkoa.

12. 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

13. 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Tokiko Ogasunak arautzen dituena eta huraxe garatzeko araudia.

Epaimahaiak erabakiko du probak zenbat irauten duen, eta gehienez, 40 puntu izanen ditu. 20 puntu eskuratzen ez dituzten izangaiak bazterturik geldituko dira. Erantzun okerrak ez dira zehaztuko.

5.2. Proba teorikoa. Epaimahaiak arestian aipatu gaiekin lotuta zehazten duen kasuren bati buruzko txosten juridikoa idatzi beharko da. Probak 40 puntu izanen ditu gehienez ere, eta 20 puntu eskuratzen ez dituzten izangaiak bazterturik geldituko dira.

Ariketa hau egiteko, paperezko lege-testuak erabiltzen ahalko dira, iruzkinik gabe, betiere.

Proba teorikoa gainditu duten izangaiak soilik egingen dute proba praktikoa.

Plika itxien sistema erabiliko da oposaketa egiteko.

5.3. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta oposiziotik baztertuta geldituko dira agertzen ez diren izangaiak.

5.4. Hautaprotetan, minusbaliotasuna izanik halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

5.5 Ariketak NAPIren instalazioetan egingo dira. Plika itxien bidezko sistema erabiliko da, eta ariketa praktikoa egiteko, paperezko lege-testuak erabili ahalko dira, iruzkinik gabe, betiere

6. oinarria – Lehiaketaldiaren balorazioa

6.1. Deialdi honetako izangai guztiek, merezimenduak dituztela uste badute, oinarri hauetako zehaztapenei jarraikiz, agiri bidez frogatu behar dituzte, eskabidea aurkeztearekin batera.

6.2. Epaimahaiak, 5. oinarrian aurreikusitako proben garapenean, izangaiak aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu honako baremoarekin bat eta, osotara, ez da inoiz 20 puntu baino gehiago emanen. Hona hemen:

- Nafarroako toki entitate bateko idazkari eta/edo kontu-hartzaile lanetan egindako zerbitzu urte bakoitzeko puntu 2, eta gehienez ere 10 puntu.

-Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzu urte bakoitzeko, haietan aritzeko Zuzenbideko gradua, Politika eta Administrazio Zientzietako gradua, edo Soziologiako lizentziatura edo Politika Zientzietako eta Soziologiako lizentziatura edo baliokidea izatea eskatu bada, 0,50 puntu, eta 6 puntu gehienez ere.

-Especializazio edo hobekuntza ikastaroetara joan den bakoitzeko, idazkari lanari berez dagozkion arlokoak izanik, 5 eta 15 ordu artekoak izan badira, 0,6 puntu ikastaroko, eta 15 orduetik gorakoak izan badira, puntu 1 ikastaroko, betiere gehienez ere 4 puntu idatz-zati honetan.

Aipatu balorazio irizpideak aplikatzeko, arau hauek hartuko dira kontuan:

-Baloratu behar den urte kopurua osoa ez bada, proportzioan dagokiona emanen zaio.

-Ez dira bi aldiz zenbatuko baremoko talde berean dauden zerbitzuak denbora berean egin badira.

-Soilik hartuko dira kontuan jatorrizko agirien bidez edo behar bezala konpultsatuta frogaturiko merezimenduak,

- Ez dira puntuatuko bost orduetik beherako ikastaroak.

7. oinarria – Epaimahaiaren proposamena

7.1. Azken proba hori bukatu, epaimahaiak puntu gehien lortu dituen izangaia kontratazeko proposamena eginen dio administrazio dei-egileari.

7.2. Bi izangairen puntuazioan berdinketa izanez gero, lehentasuna izanen du proba teorikoan puntuaziorik handiena eskuratzen duenak, eta, hala ere, berdinketa hausten ez bada, zozketa eginen da.

7.3. Proposamena loteslea izanen da deialdia egin duen administrazioarentzat.

7.4. Hautatutako izangaia astebeteko epean hasi beharko du lanean, gehienez ere, deialdia egiten duen Administrazioaren kontratazio proposamena onartzen duenetik aitzina. Ez bada hasten, behar adina justifikatutako kasuak salbu, edo lanean hasi eta berriz lanpostua hutsik gelditzen bada, organo eskudunak kontratazioarekin ados dauden izangaiei egin ahalko die kontratua, hautapen prozesuan ateratako puntuazio onenaren hurrenkerari jarraituz.

8. oinarria – Ordezkapenatarako zerrendaren funtzionamendua

Antsoingo Udalean diren beharren arabera egiten ahalko zaie dei ordezkapenatarako zerrenda-kideei, betiere deialdi honetako oinarrietan ezarritakoari nahiz aplikatu beharreko gainerako arauari jarraituz.

Deiak honela eginen dira:

a) Errazago aurkitu ahal izateko, zerrenda-kideek harremanatarako telefono bat bederen jakinarazi beharko diote Antsoingo Udalari, bai eta posta elektronikorako helbide bat ere. Informazio horrek beti eguneratua egon beharko du.

b) Bi saiakera bederen eginen dira, 24 orduko epean, kontratua eskaintzen zaion zerrenda-kide bakoitza aurkitzeko, hark jakinarazitako bideak erabiliz.

c) Zerrenda-kide bat aurkitzerik ez bada, zerrendan hurrengo denarekin edo hurrengoak direnekin jarri beharko da harremanetan, postua bete arte. Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

Eta deialdi honetan xedatutakoa ez dagoen orotan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua aplikatuko da.

9. oinarria – Datuak babestea

2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, izangaiei ondokoa jakinarazten zaie:

-Izangaiek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Antsoaingo Udala da.

-Datuen tratamenduaren xedea da langileak hautatzea eta deialdiko lanpostua betetzea.

-Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.b) artikulua, kontratu bat gauzatzeko behar den tratamendua, interesduna kontratu horren parte bat denean, edo berak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa dena, eta DBEOren 6.1.c) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legezko betebeharrak betetzeko behar den tratamendua.

-Datuak zein xedetarako bildu diren, bada xede hori lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta deialdiaren edo datuen tratamenduaren ondorioz izan daitezkeen erantzukizun guztiak zehaztu ahal izateko ere. Artxiboen eta dokumentazioaren gaineko araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen agiriak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).

-Datuen komunikazioa egiten da legeak aurreikusitako kasuetan (5/2015 LED, urriaren 30ekoa), argitaratzea barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikuluekin bat.

-Titularrek eskubidea izanen dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haiei kontra egiteko eta datuak eramateko. Horretarako, udal bulegoetara jo dezakete, eta han informazio gehiago eskuratzeko dute.

-Halaber, uste badute datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean den araudiarekin, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari (aepd.es).

10. oinarria – Baliabideak

Deialdi honen, haren oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtsorik haurerako bat aurkez daiteke, hautara:

A) Berraztertze errekurtsua, ebazpen hau eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

C) Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

D) Kalifikazio epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke Antsoingo Udaleko alkateari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Antsoainen, 2019ko urriaren 28an.

Sin. Ander Andoni oroz Casimiro

ESKABIDE EREDUA

Izena:

.....
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:, jaioteguna:

.....
jaioterria:, eta bizitokia:

.....
herria: (.....), kalea:

.....
zenbakia:, pisua:, posta kodea:, telefono finkoa:

.....
telefono mugikorra:, e-maila:

.....
zure aurrera agertu eta ADIERAZTEN DUT:

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

Ez dudala indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere.

Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ez eta diziplinako kaleratze bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

Eskaerak aurkezteko epearen azken egunean beharkizun guztiak betetzen ditudala.

Euskararen ezagutza frogatzeari dagokionez (markatu bidezkoa dena):

Eskatzen den euskara mailako ezagutza izatearen ziurtagiriaren kopia gehitzen diodala eskabide honi.

Eskatzen den euskararen mailako ezagutza frogatzeko proba egitea eskatzen dudala.

Desgaitasuna dudala eta, beraz, azaltzen diren egokitzapenak eskatzen ditudala, adierazten diren arrazoiengatik. (Beste orri batean azaldu behar dira eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak).

Minusbaliotasuna dudala frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.

Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:

- Nortasun agiri nazionala.
- Eskatzen den titulazio akademikoa.
- Merezimenduak, lehiaketaldirako.
- Langabezia txartela edo enplegu hobekuntzarena

Horrenbestez, iragarritako deialdian onartua izatea ESKATZEN DUT.

2019koaren(e)an

(Sinadura)

